

5. Pazko Igandea (B)

EBANJELIOA

Norbait niri itsatsia badago, fruitu asko emango du.

+ Jesu Kristoren Ebanjelioa San Joanen liburutik 15,1-8

Denbora haietan, Jesusek bere ikasleei ezan zion:

«Neu naiz egiazko mahatsondoa , eta nire Aita da nekazaria. Fruiturik ematen ez duen aihena ebaki egiten du Aitak, eta fruitua ematen duena garbitu eta kimatu, fruitu gehiago eman dezan. Zuek garbi zaudete dagoeneko, adierazi dizuedan mezuaren bidez. Zaudete niri itsatsiak, ni zuei bezala. Aihenak, mahatsondoari itsatsia ez badago, fruiturik eman ezin duen bezala, ezta zuek ere, niri itsatsiak ez bazaudete.

«Ni naiz mahatsondoa eta zuek aihenak. Norbait niri itsatsia badago, ni berari bezala, horrek fruitu asko emango du; ni gabe ezin baituzue ezer egin. Niri itsatsirik ez dagoena kanpora botatzen dute, ebaki eta ihartzen den aihena bezalaxe; gero, bildu, sutara bota eta erre egiten dute. Niri itsatsirik bazaudete eta nire irakatsiek zuengan tinko irauten badute, eskatu nahi duzuen eta izango duzue. Honetan azaltzen da nire Aitaren aintza: zuek, nire ikasle izanik, fruitu asko ematean.»

Jaunak esana.

HOMILIA

2018ko apirilaren 29a

SINETSI

Fedea ez da bihotz-zirrara edo emozio bat. Dudarik gabe, sinestedunak sentitzen du bere fedea, esperimentatzen du eta gozatzen du hartaz, baina oker handia izango litzateke hura «sentimentalismo» batera mugatzea. Fedea ez da sentimenduen baitan dagoen zerbait: «Jada ez dut ezer sentitzen; fedea galtzen ari naiz nonbait». Fededun izatea, jarrera erantzukizunezkoa eta arrazoitua izatea da.

Fedea ez da iritzi pertsonal bat ere. Fededuna pertsona bezala konprometitzen da Jainkoagan sinestera; halere, fedea ezin mugatu da «subjektibismo huts» batera: «Neure ideiak ditut nik eta iruditzen zaidana sinesten dut». Jainkoaren errealitatea ez da nire baitan legokeen zerbait; fedea ez da ere norberak sortutako zerbait. Jainkoak guban burututako egintzatik, esku hartzetik, dator.

Fedea ez da ohitura bat edota gurasoengandik jasotako tradizio bat ere. Gauza ona da familia fededun batean jaio izana eta txikitatik bizitzaren kristau-norabidea jaso izana; baina oso gauza pobrea izango litzateke fedea «ohitura erlijioso» batera mugatzea: «Nire familian beti oso Elizako izan gara». Norberaren erabaki pertsonala da fedea.

Fedea ez da errezeta moral bat ere. Jainkoagan sinesteak bere eskakizunak ditu, baina errakuntza izango litzateke den-dena «moralismo» bihurtzea: «Denak errespetatzen ditut nik eta ez diot inori gaitzik egiten». Fedea, gainera, Jainkoa maitatzea da, konpromisoa mundu gizatarrago baten alde, betiko biziaren esperantza, eskerrona, ospatzea.

Fedea ez da «lasaigarri» bat ere. Jainkoagan sinestea, dudarik gabe, bake-iturri da, kontsolamendu eta baretasun, baina fedea ez da «helduleku» soil bat une kritikoetarako: «Nik, estu gertatzen naizenean, Andre Mariagana jotzen dut». Sinestea estimulurik hobena da borrokarako, lanerako eta era duin eta erantzukizunezko bizitzeko.

Kristau-fedea, Jesusekin topo egitean hasten da gugan esnatzen. Kristauek, Kristorekin topo egin duen pertsona da, eta harengan joaten da aurkitzen Maitasun den Jainkoa, egunetik egunera bizikiago erakartzen duena. Oso egoki dio Joanek: «Guk ezagutu dugu Jainkoak digun maitasuna eta harengan sinetsi dugu. Jainkoa Maitasun da» (1 Joan 4,16).

Fede honek hazi eta fruitua eman, egunez egun Kristogan irauten dugunean ematen du, hau da, haren Espirituak eta haren Hitzak eraginik eta sostengaturik: «Nirekin bat irauten duenak, ni berarekin nagoen bezala, fruitu asko ematen du, ni gabe ezin baituzue ezer egin».

José Antonio Pagola
Itzultzailea: Dionisio Amundarain

HOMILIA

2015eko maiatzaren 3a

EZ APARTATU JESUSENGANDIK

(2009ko maiatzaren 10a homilia ikusi).

José Antonio Pagola
Itzultzailea: Dionisio Amundarain

HOMILIA

2012ko maiatzaren 6a

HARREMAN PERTSONALAK

Joanen ebanjelioko kontakizunaren arabera, Jesusek, bera hil bezperan, bere desiorik sakonen hau agertu zien ikasleei: «Iraun ezazue nigan». Badaki koldarrak eta erdipurdiko direla. Askotan bota izan die aurpegira beren fede eskasa. Jesusekin bizi-loturarik ez badute, ezin bizi izango dira.

Ezin argiago eta esanguratsuago dira Jesusen hitz hauek ere: «Aihenak, mahatsondoari loturik irauten ez badu, berez fruiturik ezin eman duen bezala, zuek ere ez nigan irauten ez baduzue». Haren ondoan ikasi eta bizi izan dutenari irmo atxikirik eusten ez badiote, bizitza agor emango dute. Haren Espirituaz bizi ez badira, hark hasia ito egingo da.

Hizkuntza gotorra darabil Jesusek: «Ni naiz mahatsondoa eta zuek aihenak». Jesusi darion izerdia jario behar du ikasleen baitan. Ez lukete hori sekula ahaztu behar. «Nigan irauten duenak eta nik harengan, hark emango du fruitua ugari, zeren ni gabe ezin baituzue ezer egin». Jesusengandik aparte, ikasleok ezin dugu ezer egin.

Jesusek ez die eskatu beragan irautea bakarrik. Beste hau esan die gainera: «haren hitzak iraunaraz ditzatela berengan». Ez ditzatela ahaztu. Bizi daitezela haren Ebanjeliotik. Iturri horretatik behar dute edan. Esana zien hori bera beste abagune batean: «Esan dizkizuedan hitzak espiritu eta bizi dira».

Berpiztuaren Espirituak bizirik eta eragile jarraitzen du gaur egun haren Elizan, era askotan; baina ikusezin eta isila den haren presentzia hori bereizgarri ikusgarri eta ahots zehatzez horniturik ageri da; hain zuzen, hurbiletik ezagutu eta jarraitu ziotenen ebanjelio-kontakizunetan gordea den oroitzapenari esker. Ebanjelioak direla medio, harremanetan jartzen gara haren mezuarekin, haren bizierarekin, Jainkoaren erreinuaz duen egitasmoarekin.

Horregatik, ebanjelioetan dago kristau-elkarteek beren bizitza biziberritzeko duten indarrik handiena. Jesusen jarraitzaileek geure nortasuna berreskuratzeko behar dugun energia. Jesusen Ebanjelioa da tresnarik inportanteena gaur egun Eliza eraberritzeko.

Gure elkarteetako kristau askok «bigarren eskutik» bakarrik ezagutzen ditu ebanjelioak. Jesusez eta haren mezuaz ezagutzen duten guztia, predikarien eta katekisten hitzetik atera ahal izan dutenetik eraiki ahal izan dutena da. Beren fedea bizi, «Jesusen hitzekin» harreman pertsonalik izan gabe bizi dute.

Nekez imajina daiteke «ebanjelizazio berri bat», jendeari ebanjelioak zuzenean eta hurbilagotik ezagutzeko aukera eman gabe. Ezerk ez indar ebanjelizatzaileagorik, Jesusen Ebanjelioa elkartean entzuteko esperientziak baino, gure garaiko galderak, arazoak, sufrimenduak eta esperantza begi aurrean ditugula.

José Antonio Pagola

HOMILIA

2009ko maiatzaren 10a

EZ APARTATU JESUSENGANDIK

Xumea da irudia eta oso adierazkorra. «Egiazko mahatsondoa» da Jesus, biziz izerditsua; ikasleak «aihen» dira, Jesusi darion izerditik bizi dira: mahastizaina da Aita, bera ari da mahastia zaintzen, fruitua oparo eman dezan. Axola duen gauza bakarra, haren egitasmoa gauzatu dadin da, hau da, mundua guztientzat gizatarago eta zorionekoago bilaka dadin.

Aipatu irudiak arazoa non dagoen nabarmendu du. Badira aihen ihartuak, Jesusen izerdirik ez dutenak. Fruiturik ematen ez duten ikasleak dira, beren zainetan Berpiztuaren Espirituaren arnasarik ez dutelako. Hilko ez hilko diren elkarteak dira, Jesusengandik etenik daudelako.

Horregatik dakar testuak baieztapen bizi hau: «aihenak ezin eman du fruiturik, mahatsondoari itsatsia ez bada»: ikasleen bizitza agorra izango da, Jesusengan «irauten ez badute». Hitz borobilak dira: «Ni gabe ezin duzue ezer egin». Ez ote da agertzen hemen gure kristautasunaren krisiaren benetako sustraia, beste ezerk ez bezala haren oinarriak zartatzen ari den barne eragilea?

Kristau askok bere erlijioa bizitzeko duen moldeak, Jesu Kristorekin bizi-loturarik gabeak, ezin iraungo du luzaroan: «folklore» anakroniko bihurtuko da, Ebanjelioaren Berri Ona inori emango ez dion folklore huts. Elizak ezin bete izango du bere misioa egungo munduan, geure burua «kristau» jotzen dugunok Jesusen ikasle bilakatzen ez bagara, mundua gizatarago egiteko haren espirituak eta haren grinak animatzen ez bagaitu.

Kristau izateak Jesu Kristoz bizi-esperientzia egin beharra dakar, hura barnez ezagutu beharra eta haren egitasmoarekiko grina; kristiandadeko gizartean ez zen halako beharrik erlijio-betetzaile huts izateko. Jesusekin harreman estuagoak eta grinatsuagoak bizitzen ikasten ez badugu, gure kristautasunaren gainbehera gaixotasun hilgarri bihur daiteke.

Arazo askoz arduraturik bizi gara gaur egun kristauok, eta gogoz barreiaturik. Ezin da besterik izan. Baina ez ginateke ahanzi behar funtsezkoaz. «Aihen» huts gara guztiok. Jesus bakarrik da «egiazko mahatsondoa». Inporta duen gauza une honetan «harengan irautea» da: gure arreta guztia Ebanjelioari eskaintzea: gure talde, sare, elkarte eta parroketan harekiko harreman biziak elikatzea; harengandik ez apartatzea.

Blog: <https://homiliaspagola.blogspot.com/>

José Antonio Pagola Itxaldiaren Bideoak ikusteko:
<http://iglesiadesopelana3v.blogspot.com>